

Beroak txikiagotu zituen zaldiak, eta hotzak handitu

Zaldien fosilak aztertu dituzte Nebraskako Unibertsitateko ikertzaileek, eta ondorioztatu dute klima-aldaketak gidatu zuela zaldien arbasoek jasan zuten tamaina-aldaketa nabarmena duela 55,5 urtetik 54,5 urtera doan aldiari. Ikertzaileek aztertu duten aldia Paleozeno-Eozeno maximo termal gisa ezagutzen da, eta gorabehera klimatiko azkarreko aldia izan zen. Zaldi fosilen hortzetako karbono-13 eta oxigeno-18

isotopoeekin egindako neurketetan oinarrituta, ikertzaileek ikusi dute zaldien arbasoek % 30 murriztu zutela tamaina maximo termalaren hasieran, klima berotzearekin bat; eta % 70 handitu zirela beroaldiaren amaieran.

Sifrhippus generoko zaldien fosilak aztertu dituzte, denak Wyomingen dagoen Clarks Fork arroko aztarnategi aberatsekoak. Zaldi haiek gaurkoak baino askoz ere txikiagoak ziren,

5,5 kg ingurukoak. Hain justu, dinosauoak desagertuta, ugaztunak munduan barrena hedatzen ari ziren orduan, eta aldaketa azkarreko garaia izan zen hura gure arbasoentzat. Zaldienak, esaterako, Ameriketara iritsi berriak ziren, eta ikertzaileek aztertutako horiek dira ezagutzen diren zaharrenak.

Ikertzaileen esanean, ikerketak frogatzen du tenperatura dela Bergmann-en patroia eragilea. Ugaztun-espezieen bi herenek betetzen dute patroia hori: garai beroetan txikiagotu egiten dira, eta handitu garai hotzetan. Gorputzeko tenperaturari konstante eusteko beharri lotutako patroia delako gertatzen da hori. Tenperatura hotzetan, errazago eusten diote gorputzeko beroari tamaina handiko ugaztunek, bolumenaren eta azaleraren arteko erlazioa txikiagoa delako. Patroia eragileak klima eta ingurunearen produktibitatea —elikagai-ugaritasuna— direla jotzen da, baina Science aldizkarian argitaratutako ikerketan, tenperaturarekin bakarrik aurkitu dute korrelazioa ikertzaileek. ●



Zaldi modernoa ezkerrean, eta *Sifrhippus sandrae* espezieko arbasoa aurrez aurre. Bost bat kiloko pisua eta gaur egungo katuen tamaina zituen, eta zaldiaren arbaso zaharrena da. Danielle Byerley, Floridako Historia Naturalaren Museoa.
ARG.: © DANIELLE BYERLEY/FLORIDAKO HISTORIA NATURALAREN MUSEOA.



Ongi pasatu eta IKASI!

SENDAVIVA
Abentura eta dibertisioa familia osoarentzat

www.sendaviva.com Arguedas (Nafarroa) T. 948 088 100